- 2- Jairen batean nagoenean (% 16,04)
- 3- Edozein egoeretan (% 6,42)
- 4- Bakarrik nagoenean (% 2,67)
- 5- Urduri nagoenean (% 2,14)

NESKAK:

- 1- Jairen batean nagoenean (% 12,30)
- 2- Lagunekin nagoenean (% 10,16)
- 3- Bakarrik nagoenean (% 4,81)
- 4- Edozein egoeretan (% 4,28)
- 5- Urduri nagoenean (% 1,60)

Tabakoa



Probatu al duzu?


Ez-bitarren % 45,45

Mutilen % 17,01

Nesken % 14,88

Zenbatero kontsumitzen duzu?

Mutilen % 11,89k eta nesken % 8,54k kontsumitzen dituzte.



54. Grafikoa: Tabakoaren kontsumo-maiztasuna generoaren arabera

Zein egoeretan kontsumitzen duzu?


MUTILAK:

- 1- Edozein egoeretan (% 26,85)
- 2- Jairen batean nagoenean (% 20,37)
- 3- Lagunekin nagoenean (% 19,44)
- 4- Bakarrik nagoenean (% 12,96)
- 5- Urduri nagoenean (% 6,48)
- 6- Aspertzen naizenean (% 4,63)

NESKAK:

- 1- Jairen batean nagoenean (% 19,44)
- 2- Lagunekin nagoenean (% 13,89)
- 3- Edozein egoeretan (% 10,19)
- 4- Urduri nagoenean (% 6,48)
- 5- Bakarrik nagoenean (% 5,56)
- 6- Aspertzen naizenean (% 5,56)

Kalamua



Probatu al duzu?


Ez-bitarren % 36,36

Mutilen % 19,74

Nesken % 11,29

Zenbatero kontsumitzen duzu?

Mutilen % 11,48k eta nesken % 4,14k kontsumitzen dituzte.



55. Grafikoa: Kalamuaren kontsumo-maiztasuna generoaren arabera

Zein egoeretan kontsumitzen duzu?

MUTILAK:


- 1- Lagunekin nagoenean (% 37,35)
- 2- Jairen batean nagoenean (% 22,89)
- 3- Edozein egoeretan (% 22,89)
- 4- Bakarrik nagoenean (% 12,05)
- 5- Pozik nagoenean (% 10,84)
- 6- Arazo pertsonalak ditudanean (% 10,84)

NESKAK:

- 1- Lagunekin nagoenean (% 10,84)
- 2- Jairen batean nagoenean (% 9,64)
- 3- Pozik nagoenean (% 4,82)
- 4- Edozein egoeretan (% 4,82)
- 5- Bakarrik nagoenean (% 3,61)
- 6- Arazo pertsonalak ditudanean (% 1,20)

Beste droga batzuen kontsumoak


Arnasgarriak



Probatu al duzu?

Mutilen % 10,25
Nesken % 3,90
Ez-bitarren % 0


Kokaina



Probatu al duzu?

Mutilen % 5,53
Nesken % 1,46
Ez-bitarren % 0


Estasia



Probatu al duzu?

Mutilen % 4,92
Nesken % 1,71
Ez-bitarren % 0


Speed-a



Probatu al duzu?

Mutilen % 4,71
Nesken % 1,22
Ez-bitarren % 0


Ketamina



Probatu al duzu?

Mutilen % 3,89
Nesken % 1,22
Ez-bitarren % 0


Metanfetamina



Probatu al duzu?

Mutilen % 3,28
Nesken % 1,46
Ez-bitarren % 0


Psikofarmakoak



Probatu al duzu?

Mutilen % 2,66
Nesken % 1,71
Ez-bitarren % 0

Haluzinogenoak



Probatu al duzu?

Mutilen % 2,66
Nesken % 1,71
Ez-bitarren % 0

Beste substantzia batzuen kontsumoetan, **mutiak dira gehien kontsumizten dituztenak. Ez dago** substantzia hauek probatu dituen **pertsona ez-bitarrik.**

Genero desberdintasun handienak arnasgarrietan 6,35 puntuko aldearekin eta kokainan, **4,07 puntuko** aldearekin ematen dira.

(DBH eta ondorengo emaitzak)

Erraz egiten zaizu ondorengoak eskuratzea? Jakingo zenuke nora jo?

(DBH eta ondorengo enaitzak)

SUBSTANTZIAK ESKURAGARRI DITUZTELA ERANTZUN DUTENEN EMAITZAK:

- 1- ALKOHOLA % 60,76
- 2- BAPERRA % 43,88
- 3- TABAKOA % 38,40
- 4- KALAMUA % 25,60
- 5- ARNASGARRIAK % 23,91
- 6- PSIKOFARMAKOAK % 15,33
- 7- KOKAINA % 12,52
- 8- SPEED-A % 9,56
- 9- ESTASIA % 9,28
- 10- KETAMINA % 7,74
- 11- HALUZINOGENOAK % 7,03
- 12- METANFETAMINA % 6,47
- 13- HEROINA % 4,36


SUBSTANTZIARIK GABEKOAK ESKURAGARRI DITUZTELA ERANTZUN DUTENEN EMAITZAK:

- 1- PORNOGRAFIA % 36,43
- 2- KIROL APUSTUETAKO MAKINAK % 32,49
- 3- TXANPON MAKINAK % 31,08
- 4- ON-LINE APUSTUAK % 26,02
- 5- APUSTU ETXEETARA SARTZEA % 13,92

Droga legalen kasuan, **alkohola da eskuragarrien daukaten** substantzia eta **droga ilegalen artean** lehenik **kalamua** eta ondoren **arnasgarriak**.

Pornografia esan dute dela substantziarik gabeko jokabideetan **eskuragarrien daukatena** eta jarraian **kirol eta diru apustu**etako **makinak**.

Nagusiagoa zarenean hurrengo substantziak probatuko dituzula pentsatzen duzu? (LH-koen emaitzak)



56. Grafikoa: LH 3.zikloko ikasleek etorkizunean tabakoa, alkohola edo baperra kontsumituko duten edo ez

Lehen Hezkuntzako 5 eta 6.mailako ikasleei etorkizunean kontsumituko duten galdetzerakoan, % 91,41ek ez duela baperra kontsumituko erantzun du, % 89,39ek ez duela tabakoa erreko eta erdiak baino gutxiagok, hau da, % 42,93k, ez duela alkohola edango dio.

ALKOHOLA BAI EDO AGIAN EDANGO DUTENAK:



Zergatik uste duzu nagusiagoa zarenean probatuko duzula?



TABAKOIA

- 1- Neurritz hartuta ez delako kaltegarria % 57,14
- 2- Gazteek eta pertsona helduek erretzen dutelako % 42,86
- 3- Modan dagoelako % 19,05
- 4- Dibertigarria izan daitekeelako % 19,05



BAPERRA

- 1- Neurritz hartuta ez delako kaltegarria % 58,82
- 2- Tabakoa baino kalte gutxiago egiten duelako % 29,41
- 3- Gazteek eta pertsona helduek erretzen dutelako % 23,53
- 4- Dibertigarria izan daitekeelako % 5,88
- 5- Gazteek eta pertsona helduek erretzen dutelako % 5,88



ALKOHOLA

- 1- Neurritz hartuta ez delako kaltegarria % 72,57
- 2- Gazteek eta pertsona helduek erretzen dutelako % 30,09
- 3- Ohitura bat delako % 23,89
- 4- Dibertigarria izan daitekeelako % 8,85

2- ARETXABALETA ETA ESKORIATZAKO GAZTEEN FORO PARTE-HARTZAILEA

Toki-administrazioen ardura, nerabe eta gazteen bizitzan sortutako premiei eta interesei hurbileko erantzuna ematea den heinean, Eskoriatza eta Aretxabaletako ikastetxeen laguntzarekin, **gazteen ordezkari taldeek eremu desberdinetan bizi dituzten arazoei buruzko gogoeta egin dute**, honekin batera, dituzten beharrak identifikatu eta hauei erantzuteko proposamenak eta eskaerak modu parte-hartzailean egiteko aukera izan dute. Bizizako hainbat alderditan sakondu dute, hala nola, substantzia eta substantzia gabeko kontsumo eta erabileratan, aisialdiaren kudeaketa, ongizate emozionala eta udalerrri bietako baliabideak eta proiektuak.

Laburbilduz, hauek dira **jasotako erantzunak**:

DBH-ko 1.go zikloa:

Substantzia eta substantzia gabeko kontsumoak eta erabilerari buruzko pertzepzioa:

Kezka iturri nagusia adin txikienetan sare sozialen, mugikorraren eta baperreraren eskuragarritasuna eta gehiegizko erabilera da, eta honi aurre egiteko neurriak hartzea ez da gazteen eskumena. Gazte eta nerabeetan **kalamuaren kontsumoa normalizatuta** dago, egunero erretzea ohikoa da, bai eta jai giroan ere. Bestelako drogen artean hautematen direnak, LSD, Fentanilo, Extasia eta metanfetamina dira.

Generoaren arteko kontsumo/erabilerak bereiztu daitezke, **sare sozialen erabilera orokorra izanik, nesketan lehenesten da, mutiletan aldiz kirol apustuak eta kalamuaren kontsumoa.**

Jokabide hauetaz gain, **Bullying-ak eta eraso sexualak ardura sortzen dute** eta **gai guzti hauek jorratzeko hitzaldi gehiago** jasotzearen beharra dago.

Aisialdiaren kudeaketa:

Udalerrietako aisialdia eskaintzaren **balorazio positiboa** egiten dute, hala ere, **ordutegi eta eskaintzaren aniztasun gehiago** egotea nabarmentzen dute.

Udalerriko baliabideak eta proiektuak:

Udalerriko baliabideetan **ahulguneak daude**. Osasun zerbitzuaren funtzionamendua defizitarioa da, herriko anbulategia txiki geratzen dago eta pazienteari eskaintzen zaion denbora luzatu behar da, bai eta **nahasmen mentala dutenentzako arreta zerbitzua zabalagoa eskaintzea ere**. Herrian ez da behar haina egiten **drogen eskuargarritasunari dagokionez, hauekiko kontrol falta dago**, zehazki **gazteei alkohola ez saltzeko neurriak hartu behar dira**. Herriko azpi-egiturari dagokionez, bizilagunen segurtasuna gehiago bermatzeko herriko argiztapena hobetu behar da, bai eta mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna

EMAITZAK: Gazteen foro parte-hartzailea

46

hobetu ere, adibidez eskailerak bezalako oztopo arkitektonikoak ezabatuz. Udalerriko baliabideak orohar irisgarriagoak izan beharko lirateke, zehazki, **Udaleko zerbitzuen ordutegia zabaldu behar da. Jai ekitaldiak espazio zabaletan ospatzeko eskaintza zabaldu behar da, adibidez kontzertu gehiagorekin.**

Ongizate emozionalaren pertzepzioa:

Nahiz eta orokorrean bizitzarekiko daukaten gogobetetze maila altua izan, badaude eremu honetan **arduratzten dieten alderdiak:**

- **Eskola Jazarpenak** arduratzen gaitu.
- **Lagunarteko tratu txarrak.**
- **Segurtasun falta** somatzen dugu.
- Ez ditugu gure emozioak kanporatzen; **ez ditugu gure arazoak kontatzen.**
- **Sexualitatearekin lotutako gaiak arduratzen gaituzte**, hala nola, nahi gabeko haurdunaldiak, harreman sexualetan antisorgailuen erabilera desegokia...eta bortxaketak.
- Emakumeak gaizki tratatzen dira.
- **Ikastetxean bizitzen ditugun egoerak estresanteak dira**, askok, **antsietatea** izaten dute.
- Familiari dagokionez:
 - Batzuetan tratu txarrak ematen dira familian.
 - Gurasoei gauzak izkutatzen dizkiegu.
- **Gure gorputz irudiari gehiegizko garrantzia ematen diogu** eta sare sozialek autoexijentzian eragin handia dute.

- Gazte batzuk entzunak eta kontuan hartuta direla sentitzen dute baina beste askok ez.
- **Gure etorkizunak arduratzen gaitu.**

Herria eta komunitatea:

Herria eta komunitatea, hezigarria eta segurua da berton jaiotzen direnentzako baina etorri berriak diren pertsonetarako ez, tratu txarragoa pairatzen bait dute eta baztertzeko zaie eta eskubideak urratzen zaizkie.

DBH-ko 2. zikloa:

Substantzia eta substantzia gabeko kontsumoak eta erabilerari buruzko pertzepzioa:

Udalerrian drogen kontsumoa oso normalizatuta dago, batez ere alkoholarena, baperrarena eta kalamuarena. Alkohola eta baperraren kasuan, 14 urterekin hasia ohikoa dela dirudi. Bestalde, **Poperraren kontsumoan igoera dagoenaren pertzepzio orokorra dago. Kontsumo hauek gehienetan jai giroan** ematen dira, baina ohikoa izaten da baita ere jaiak ez diren egunetan kontsumitzearena, adibidez **baperra kontsumitzen duten gazteak ikus daitezke ikastetxe inguruan.** Nahiz eta asko arduratzen dien gaia izan, normalizazio honen aurka gazteek ezer gutxi egin dezaketaren pertzepzioa dute.

EMAITZAK: Gazteen foro parte-hartzailea

47

Mugikorraren gehiegizko erabilerak ere asko arduratzen die. Antzerakoa gertatzen da adikzioa garatzeko potentziala duten beste jokabide batzuekin, gazte guztiek smartphone bat dutela iruditzen zaien heinean **sare sozialen erabilera eta baita ere bideojokoena oso ohikoa da gazteen artean.**

Genero aldetik desberdinatsunak daudela iruditzen zaie, **kirol apustuak, batez ere mutiletan ematen bait dira eta nesketan sare sozialen erabilera.** Adikizioen prebentziorako jasotzen dituzten tailerrak desnormalizaziorako erangikorrek direla iruditzen zaizkien arren, **adin txikikoei baperraren eskuragarritasun mugatzeko neurri gehiago hartu behar direla uste dute.**

Aisialdiaren kudeaketa:

Aisialdiarekiko gogobetetze maila oso altua da, ekintza anitzak egotea baloratzen da, gazteen beharretara egokituta daude baina zabalago izan beharko litzateke eta irteera gehiago antolatzea faltan botatzen da, adibidez “Aquapark” edo “Pump Track” batera. Udalerriko eskaintzarekin gustura egon arren, denbora libre gehiena mugikorraren erabileran inbertitzen dute, baita, kalean lagunekin egoteko.

Udalerriko baliabideak eta proiektuak:

Udalerria osasuntsuagoa izateko osagaien artean drogen eskuragarritasuna mugatuko dituzten neurriak hartzea gailentzen da.

Ondoren, osasun zerbitzuak hobetzea, pazienteen arreta arintzea nabarmenduz eta batez ere buruko nahasmena dituztenena.

Gazteei kirola egitera animatzeko ekimenak egin behar dira eta aisialdiko ekintza guztiak euskaraz izatea. Ikastetxean jasotzen dituzten tailerrekin jarraitzearen beharra dago, hala ere, tailer hauetan lantzen diren ohiko gaiez aparte bestelako batzuk lantzea ere proposatzen dira: Homofobia, Genero berdintasuna, Elikadura nahasmenak eta beste buruko nahasmen batzuk.

Ongizate emozionalaren pertzepzioa:

Ongizate emozionalarekiko asebetetzea oso baxua dutela iruditzen zaie, besteak beste, ez direlako kontutan hartzen sentitzen dute. Maila desberdinetan presio handia pairatzen duten sentsazioa dute eta honek emozionalaki desoreka sortarazten die eta emozioen kudeaketa desegokiarekin adierazten dute. Hautematen dituzten presio nagusien artean familiarekiko harremanetan datza, komunikazioa nahi besteko ona ez dela iruditzen bait zaie eta ikasketetan nota onak ateratzeko gehiegizko presioa dutela iruditzen bait zaie. Presioa baita ere, gorputz irudiarekin lotzen dute, sare sozialen bitartez idealizatzen diren gorputzek ideal hori lortu nahi izatearen presioa sortzen baitu eta normotipo horretan enkajitzen ez duenak erasoak jasotzen ditu, baita ere sare sozialen bitartez.

EMAITZAK: Gazteen foro parte-hartzailea

48

Herria eta komunitatea:

Herritar bezala babestuak sentitzen dira, nahiz eta batzuetan gaztea izateagatik erasotuak izaten direla sentitu. Beraien ahotsa gehiago entzuna izateko beharra dute eta horretarako aukerak eta espazioak areagotu behar dira.

Udalerrian adin tartearen arabera banatutako eskaintza egon beharko liztatekeela diote. **Genero edo jatorriaren arabera, ez dela aukera desberdinatsunik egiten iruditzen zaie.**

3- ARETXABALETA ETA ESKORIATZAKO ERAGILEEN FORO PARTE-HARTZAILEAK

Udalerrietako eragile desberdinekin 3 foro parte hartzaile antolatu ondoren, hauek **dira foro bakoitzetik jasotako erantzun eta ideia nagusiak:**

Hezkuntza formala, osasuna eta guraso elkarteak

Sarrera:

Abiapuntu bezala, guztiak bat datoz esanez osasunaren gaia, herritar edo pertsona guztioi dagokigun gaia dela. **Gutxi batzuk ordea, gai honen inguruan aritzeko beraien burua ordezkari rol-ean ez dutela ikusten adierazi dute, horrela jardun ahal izateko informazioa edo aurre lanketa bat egon beharko lukeela adieraziz.**

Taldea bere osotasuenan bat dator esanez foro hauek nerabeekin harreman duten **eremu desberdinetako pertsona eta profesionalen arteko sinergiak bilatzeko aukera dela, gazteen errealitatea ezagutu, beharrak identifikatu eta osagarriak diren ikuspuntu ezberdinak partekatzeaz gain helburu konpartituak eraikitzeo unea dela.** Norabide berdinean eta esparru desberdinetatik lana egiteko aukera zabaldu da.

Substantzia eta substantzia gabeko kontsumoak eta erabilerari buruzko pertzepzioa:

Substantzia eta substantzia gabeko kontsumoei dagokionez udalerrian azken urteotan aldaketak egon direla hautematen da. **Tabakoa eta kalamuaren egunerokotasuneko kontsumoa murriztu bada ere, alkohola, baperra eta edari energetikoen kontsumoa areagotu da eta adin goiztiarretan hasten dira, zehazki, lehengo kontsumoak Lehen Hezkuntzako 6. mailan kokatzen dira.** Oso normalizatuak eta bisualak dira kontsumo mota hauek. Hala ere, **gailu digitalen gehiegizko erabilera eta hauek buruko osasunean duten eragin kaltegarria da gehien arduratzen duena.** Gailu digitalekiko, **batez ere mugikorrarekiko, eta sare sozialekiko dependentzia** geroz eta handiagoa dute gazteek, eta substantzien kasuan gertatzen den bezala, eskuragarritasunak erabiltzen hasteko adina nabarmenki jeitsi du. Gazteak erabiltzen duen mugikorrak internetera konexioa duen heinean, **eskuragarri jartzen dio baita ere pornografiara edo jokoetara.**

Bizitza eta gorputz irudi perfektua izateko, atsedetik gabe, **gailu digitaletatik kudeatu ezin dituzten in put-en jarria izaten dute eta honek beraien osasun mentalean inpaktu zuzena izaten ari da, hala nola: sexulitate osasuntsu bat zer denaren irudi distortsionatua, jazarpena, jokabide suiziden**

EMAITZAK: Eragileen foro parte-hartzaileak

50

gorakada, elikadura nahasmenen gorakada, norbere buruari kalte fisikoak egitea, loan interferentziak izatea, depresioa eta antsietatea gorakada... Era berean, egoera hauek eutsi nahian, psikofarmakoen kontsumoen igoera nabarmena ekarri du.

Identifikatzen diren arrisku faktoreen artean, adikzioa garatzeko potentziala duten substantzia eta gailuekiko normalizazioa eta eskuargarritasuna da. Nerabezaroaren prozesu biologiko, psikologiko propioak berez arrisku faktore dira, baina hauen denborak aldatzeak arriskua areagotzen du, halaber, familia barneko dinamikak ere: gehiegizko exigentziak, permisiboegiak izatea, behar dutena baino diru gehiago ematea, betetzen ez diren edo bete nahi diren espektatibak lortzeko presioak... eta batez ere, familia bezala eredu ez izatea. Fokoa gazteetan jartzen da baina familiak eredu izan behar du. Familiak geroz ete tolerantzia gutxiago dute ondoez emozionalarekiko eta arintzeko gehiegizko medikalizazioa dago. Helduek, ondoeza emozionala partekatzeko profesionalenganako joera dute testuinguru hurbilean egonezina partekatu beharrean. Hau da gazteek duten eredu.

Udalerrri osasuntsu baten osagaiak:

Gazteen osasuna zaindu, babestu eta sustatzeko, udalerrian batez ere **bi alderdi idartu** behar dira. Alde batetik, **Kale heziketako programak eta kale hezitzaileen presentzia**

indartu behar da eta bestetik, **aisialdiaren eskaintza zabalgoa indartu behar da, adinari egokituagoa kultura eskaintza gehiagorekin eta ordutegia zabalagoekin** (udako denboraldian oraindik esfortzu gehiago jarri behar da eremu honetan) eta familian egiteko ekintzak bultzatu behar dira, hala nola: zuhaitz eguna, erreka garbiketa...

Bestalde, gazteak beren osasunaren eta ongizatearen protagonista eta eragile izateko gazteen foro parte-hartzaileak sortu behar dira, espazioak eta aukerak eskaini behar zaizkie herritar aktiboak izan daitezen, udalerriri dagokion gai desberdinen inguruko hausnarketa eta proposamenak egiteko aukera izan behar dute eta udalerriak esaten duten hori kontutan izango duenaren konpromezua hartu behar du.

Orokorrean arduratzen duen gai nagusienetariko bat adikzioen eremua izanik, eskaintza murriztu eta kontrolatzeko hainbat ekimen edo ekintza proposatzen dira: ikasle eta familiei zuzendutako formakuntzekin jarraitzea, kontzientziazio ekimen desberdinak sustatzea, udalerriko eragile desberdinen arteko saretzea eta irizpide berdinek jarraitzea, legea betearaztea eta familia barneko komunikazioa indartzeko ekimenak sustatzea, batez ere alkohol kontsumoa eta mobilaren erabilera murriztu ahal izateko, familiak izan behar bait du eredu ona.

Osasunaren sustapena eta prebentziorako programak:

Udalerrietan martxan dauden programen inguruko ezagutza gutxi dagoenaren pertzepzioa dago. Programa ezagunen artean : EKKO, Altxaburua, Treba, ikastetxeetako prebentzio programa, Lagunza psikosozialekoa eta kale heziketako programak daude.

Lehentasunez lantzen jarraitu behar diren programak dira, baina kale hezitzaileen presentzian idartzeko beharra goraipatzen da, baita ere familientzako sentsibilizazio kanpainak bateratuak egitera bideratuta esfortzuak ere.

Hezkuntza ez-formala, udal teknikariak eta zinegotziak

Sarrera:

Foroan parte hartzearen garrantzia azpimarratu da, haur eta gazteekin harreman zuzena izateak, gertuko erreferente izatea, informazio iturri oso ona izatea ahalbidetzen bait du osasunaren sustapenerako eta prebentzio lanerako. Bestetik, bakoitzak bere eremutik duen informazio hori beste eremu batzuetako profesionalen informazioarekin osatzeko aukera ematen du eta irizpide bateratzeko lehen urratsa.

Gazteekiko ditugun ardurataz eta herrian dauden beharrak eta gabeziataz hitz egiteko espazioa da.

Substantzia eta substantzia gabeko kontsumoak eta erabilerari buruzko pertzepzioa:

Substantzia eta substantzia gabeko kontsumoei dagokionez azken lau urteotan batez ere **baperra eta edari energetikoen kontsumoak gorantz egin duela hautematen da, alkoholaren kasuan gainera pandemia garaia inflekzio puntua izan zen, geroztik aurrera denbora espazio laburragoan eta azkarrago edaten bait da.**

Adizkia garatzeko potentziala duten jokabideen artean, mugikorren gehiegizko erabilera eta eskuragarritasuna azpimarratzen da, genero desberdintasunik gabe. Sare sozialak nesken kasuan eta apustuak zein pornografia ikustea mutilen kasuan gorantz egin dute. Azukrearen gehiegizko kontsumoak, litxarkerien irentsita, ere arduratzen du.

Ondoez emozionalak ere gorantz egin duela uste da, eta honen arrazoi nagusia hiperkonexioa da. Gailu digitalen bitartez jasotzen dituzten eta kudeatu ezin dituzten in put-ek era ezezkorrean eragiten daude gazteen autoestimuan, baita ere mugako jokabide batzuk sare sozialetara igotzea posturoo hutsagatik, batez ere kirolarekin lotutako irudiak. Orokorrean, berdinkideen arteko harremanak oldarkorragoak bihurtu dira, batez ere arautu gabeko espazioetan, irainaren erabilera ohikoa bait da, baina mugikorra harremantzeko bide

EMAITZAK: Eragileen foro parte-hartzaileak

52

nagusia bilakatu den heinean isilpeko jazarpen kasuen igoera egotea ekarri du. **Harreman digital hauek beste osasun arazo batzuk ekarri dituzte: elikadura nahasmenak, autolesioak, nahi gabeko bakardadearen pertzepzioa; nesketan batez ere antsietatea eta hipersexualizazioa eta mutiletan jokabide oldarkorrak, gehiegizko autoexijentzia gorputz irudiarekin.**

Ondoez emozional hauek badituzte hainbat arrazoi, hau da, **arriku faktore argiak daude. Gazteen beraien artean duten harremantzeko era aisialdiaren menpe dago,** hau da, linea bakarreko aisialdia eskaintzen baldin bada, **kontsumoa sustatzen duena edo kirola bakarrik praktikatzearena, horren araberako harremanak eta bizi estiloa izango dute.**

Mugikorraren eskuragarritasunak eta erabilerak ere beste jokabide asko ahalbidetzen ditu: pornografia ikustea, indibidualismoa edo norbanakotasuna sustatzea, ez jakitea aspertzen.... Mugikorra errealitateetik ihes egiteko gailu bezala erabiltzen da. **Hurbileko erreferenteen eredu ezezkorra beste faktore bat da, adibidez, kirol entrenatzaileak ez direla eredu identifikatu da herrian edo/eta gurasoen aisialdia haurren deskantsuarekin ez datorrela bat.** Herriko gazteek txikitatik ez dute izan mugarik baliabide material, batez ere digitaletan, eta horrek **hiperestimulazioan** bukatu du.

Guzti hau kontutan hartuta, **Udala haur, gazte eta nerabeen errealitatearekiko hurbilago egotearen beharra ikusten da eta herritar haueki zuzendutako zerbitzuetan inbertsio gehiago egin behar dela ondorioztatzen da.**

Udalerrri osasuntsu baten osagaiak:

Udalerrriak osasuntsuak izan daitezen bi alderdiri erreparatu behar zaie, **alde batetik komunitateak prebentzio eragile aktiboagoa izateko konpromezuak hartu behar ditu,** hau da, fokoa gazte-nerabearengan jarri ordez, komunitatea osatzen duten helduengan jarri behar da, **eta bestetik, nerabeek gaur egun dituzten aisialdi eskaintzan egokitzapenak egin behar dira.**

Komunitateari dagokionez, **formakuntza eta sentsibilizazio kanpaina gehiago behar dira,** batez ere egunerokotasunean nerabeekin **harreman zuzena duten horiei zuzendua, dendariak eta ostalaritzakoak barne,** honekin batera, kontsumo eta erabilera arriskutsuekin lotutako jokabideak erregulatzen dituzten **legeak betearazi behar dira. Nerabeekin ohitura osasungarriak lantzeko ekimen gehiago ere behar dira baina helduok mugikorraren erabileraren inguruko konpromezuak hartu behar ditugu;** espreski familiei arreta berezia jarri behar zaie, ohitura osasungarriak sustatze aldera, **Altxa Burua bezalako ekimenak mugikorraren erabilera lantzearen beharra mahai gainean jarri bait du.** Honekin lotuta, **gazteen topa lekuetan eta espazioetan mugikorraren erabilera mugatu behar da.** Aisiladiarekin jarraituz, **gazteak eurak izan behar dira beraiein aisialdia disienatu behar dutenak,** oso egituratuta dute eremua da hau eta aukera eman behar zaie beraiein ineteresetan oinarrituta aisialdia eraikitzeke, propioak eta inpaktuzkoak izan daitezen, eta ahalden neurrian generazioartekoa.

EMAITZAK: Eragileen foro parte-hartzaileak

53

Bukatzeko, **eragile desberdinen arteko sare lan koordinatua sustatzea ere ezinbestekoa da**, ez bait da ulertzen nolatan Udalak zerbitzu eta baliabide asko jartzen dituen arren arazo mentalen gorakada egotea.

Osasunerako sustapena eta prebentziorako programak:

Osasunaren sustapenerako hainbat dira indartu beharreko **prebentzio programak, horien artea EKKO eta Kale Hezitzaileen programa**. Hala ere, **beharrezkoa da programa desberdinak bateratzea eta zeharka lantzea, hau da, gazteen eremu naturaletan sortu edo txertatu behar dira**.

Lehentasuna izan beharko lukete asteburuetakoko programak, zehazki kale hezitzaileena eta gazte lekuak.

Elkarteak eta dendari-ostalariak

Sarrera:

Herriko **eragileak foro parte hartzaileetan parte hartzeko beharra dago**, eremu honetan lan asko bait dago egiteko, besteak beste kontsumo ohiturak, kultura aldatzeko beharra dago eta hau herritarron ardura da. Hala ere, **foroan parte hartzeko aurre lanketa baten beharra dago, datu estatistiko errealak izan ezker horren gaineko eztabaida egin ahalko bait genuen**.

Udalerriko pertzepzioa gazteen osasun integralaren inguruan:

Substantzia eta substantzia gabeko kontsumoei dagokionez, orohar guztiak **normalizatuta daude**, baina batipat **kalamua eta ketaminarenak**. **Alkoholaren kasuan, edaten hasteko adina jeitsi da** eta arrisku gehiago suposatzen duten aldaketekin; gaur egun gazteenek edari destilatuak edaten dituzte, azkar eta edari energetikoekin nahastuta.

Adikzioa garatzeko potentziala duten jokabideek goranzko edo beheranzko joera hartu duten zehaztea zaila da, garai batetan erabilera hauek tabernetan egiten bait ziren baina **gaur egun on line eskuragarri** dagoenez, **zaila da joera zein izan den aztertzea**.

Hala ere, **arreta gehien deitzen dituzten kontsumoak medikamentuenak dira**. Azken urteotan buruko nahasmenduek gora egin duten heinean medikamentuenak ere **gora egin du**, alde batetik ondoez emozionala gainditzeko pilulak daude, **geroz eta gazteagoetan hasita eta emakumeen artean gehienbat antsiolitikoak eta hipnosedanteak eta gizonen artean psikoestimulatzaileak, eta bestetik nahi gabeko haurdunaldiak ekiditzeko emergentziako metodoa, hau da, hurrengo eguneko pilula**.

EMAITZAK: Eragileen foro parte-hartzaileak

54

Osasun emozionalarekin lotutako arazoetan bizi zikloaren eta generoaren arabera desberdinatsunak daude. Helduetan **antsietatea eta depresio** arazoak gailentzen dira, arazo hauek gazteenek ere partekatzen dute eta batez ere emakumeetan ematen da eta gizon helduetan jokabide agresibo eta **inpultsiboekin** lotutako arazoak. Gazteetan, **antsietatea eta depresio** arazoei **elikadura nahasmenak eta arreta defizita gehitzen zaie**. Ondoez emozionalaren gorakada hau prebenitu nahi bada, ondoez emozionalarai izena jartzetik haratago joan behar da eta berau eragiten dituzten alderdietan, arrazoietan jarri behar da arreta.

Hautematen diren **arriku faktoreen artean, familiek nerabeekiko duten gehiegizko babesa dago eta bere seme alabekin egunerokotasunean diharduten profesionalakiko lankidetzak falta**, profesional hauek aliatu izan ordez, babesgabe uzten bait ditu. **Bestetik, gazte-nerabeenganako helduok ditugun gehiegizko espektatibek** edo gazte batek nola jokatu beharko lukeen helduaren ideal horrek **gazteak presionatzera eramaten ditu eta honen ondorioz, gazteei baimentzen ez diegun eta kudeatu ezin duten frustrazioa sentitzen dute. Presioak bere horretan jarraitzen du pantailen bitartez**; sare sozialetan jasotzen dituzten in put-ek irudi perfektu bat izatera bultzatzen bait dituzte eta **pronografiara duten eskuragarritasunak rol eta estereotipo zehatz batzuk zein harremantzeko jokabide zehatz batzuk zehazten dizkie, argi eta garbi desegokiak diren ereduak.**

Zaurgarritasun egoera dauden gazteak baztertzeko guztiok dugun joera beste arrisku faktore bat da, inklusioa sustatu ordez, bazterkeria egoera betikotzea sustatzen bait dugu.

Azkenik, haur eta nerabearen osasuna **gizarte baldintza eta baldintza ekonomikoen menpe dago**, zenbat eta baldintza sozioekonomiko eragozgarriagoak, osasun txarragoa izango du. Gainera, **Osakidetzako baliabideak osasun mentaleren eremuan ez dira nahikoak.**

Udalerrri osasuntsu baten osagaiak:

Udalerrirako osasuntsuak diren **osagaiak nagusiki hiru dira: leku fisiko batetan gazteek erreferente argi bat izatea** osasun emozionalaren sustapenean lagunduko diena. **Bestetik udalerriko aisialdi eskaintza baliabide gehiagorekin, anitzagoa eta dohainekoa izatea.** Gaur egun dagoen eskaintza gehiena kirolarekin lotutakoa da eta ordaindu beharrekoa. **Eskaintza honek ez ditu gazte guztien beharrak asetzen, beraie galdetu behar zaie zer den nahi dutena eta herrian hutsik dauden lokalak erabili daitezke** dagoen eskaintzatik haratzago berri batzuk eskaintzeko, adibidez musika, kulturarekin zerikusia dutenak. Eta azkenik, gazteekin atseginagoa izango den herria izateko ekimenak sustatzea. **Gazteek entzunak eta ondo tratatuak izatearen eskubidea dute, beraz, horretarako espazioak, ekimenak sortu behar dira.**

EMAITZAK: Eragileen foro parte-hartzaileak

55

Osasunerako sustapena eta prebentziorako programak:

Herrian dauden programa batzuk osasunaren sustapenarekin eta prebentzioarekin inkoherenteak dira, batzuk alkoholaren kontsumoari alegatua egiten bait diote, horren adibide da “alkohola dastatzearen jaia”. Lehentasuna du beraz, herri mailan alkohol kontsumoaren kulturarekin bukatuko duen programa bat sortzeak.

Beste programa edo ekimen batzuk mantendu behar dira, zerbitzu psikologikoarena esaterako.

4- HERRITARREN PARTE-HARTZE GALDETEGIA

Zein da zure udalerrian substantzia gabeko jokabideen eta drogen kontsumoari buruz duzun pertzepzioa azken 4 urteetan?

ERABILERA ED O KONTSUMOAK GORA EGIN DUTELA USTE DUTENEN EMAITZAK:

- SARE SOZIALEN ERABILERA % 90,19
- BIDEO-JOKOEN ERABILERA % 75,23
- PORNOGRAFIA IKUSTEA % 69,63
- ON-LINE BIDEZKO KIROL APUSTU ETA ZORIZKO JOKOAK % 69,16
- BAPER KONTSUMOA % 66,35
- KOKAINA, SPEED ETA DERIBATU ANFETAMINIKOEN KONTSUMOA % 66,35
- PSIKOFARMAKOEN KONTSUMOA % 64,49
- ALKOHOLAREN KONTSUMOA % 57,01
- OFF-LINE BIDEZKO KIROL APUSTU ETA ZORIZKO JOKOAK % 54,21
- KALAMUAREN KONTSUMOA % 43,36
- TABAKOAREN KONTSUMOA % 26,64

- UDALERRIAN ERRAZA DA SUBSTANTZIAK ESKURATZEA % 79,44
- UDALERRIAN ALKOHOLA, TABAKOA ETA KALAMUA NORMALIZATUTA DAUDE % 84,11
- UDALERRIAK ADIKZIOEN PREBENTZIOAN PARTE HARTZEN DU % 36,45
- ADIKZIOEK PREBENITZEKO BALIABIDEAK DAUDE % 40,19

Galdetegia honetan partaideek, azken lau urteetan kontsumo eta erabilerak handitu, gutxitu edo aldatu egin diren aztertu dute.

Gehiago handi batek, **substantziarik gabeko jokabideetan sare sozialak gehien areagotu direnak direla uste du.** Ondoren **bideo-jokoak, pornografia eta on-line bidezko apustuak.**

Substantziei dagokienez, baperraren eta droga estimulanteen kontsumoak diren azken lau urteetan gehien areagotu direnak eta jarraian **psikofarmakoek kontsumoa.**

Kontsumoen bilakaeraz gain, herrian adikzioaren fenomenoak nola hautematen duten galdetu zaia eta erantzun duten gehiengoek **argi daukate tabakoa, alkohol eta kalamuaren kontsumoak normalizatuta daudela eta erraza dela substantziak eskuratzea.**

Zein da zure udalerrian ongizate emozionalaren inguruan duzun pertzepzioa azken 4 urteetan?

EGOERA EMOZIONAL HAUEK ETA NAHASMENDUAK AREAGOTU DIRELA USTE DUTENEN EMAITZAK:

- **GEHIEGIZKO ANTSIETATE-ARAZOAK % 85,05**
- **DEPRESIO ARAZOAK % 82,24**
- **ADIKZIO KASUAK % 78,97**
- **BAKARDADEA SENTITZEA % 74,30**
- **ELIKADURA NAHASMENDUAK % 58,41**

Nahiz eta herritar gehienek iritzi onak aitapatutako nahasmendu guztiak areagotu diren, **antsietate eta depresioa areagotu direla adostasun gehien izan dutenak dira**

Iritzi partekatuagoa dago elikadura nahasmenduen artean, % 58,41 izanik hauek areagotu direla uste dutenak.

- **GURE UDALERRIAK BALIABIDEAK ESKAINTZEN DITU OSASUNEREN SUSTAPENERAKO % 26,64**
- **GURE UDALERRIA OSASUNTSUA DA % 21,03**
- **UDALERRIAK NERABE ETA GAZTEAK BABESTEN DITU % 20,09**

Gai honen inguruan udalerraren erantzuna zein den galdetzerakoan, **% 20-26k uste du udalerriak ez dituele gazteak babesten eta udalerria bera ere ez dela osasuntsua.**

Hontaz gain, **ez da uste udalerriak osasunaren sustapenerako baliabideak eskaintzen dituenik.**

EMAITZAK: Herritarren parte-hartze galdetegia

58

Kontsumo eta jokabideen inguruan galdetzerakoan hauek dira herritarrek egiten dituzten EKARPENAK:

Herrian kontsumo mota guztiak normalizatuta daude, substantziena zein substantzia gabeko jokabideena. Helduok kontsumo hauek normalizatzen ditugun heinean gazteek ere eredu berbera jarraizten dute. **Komunitate bezala beste alde batetara begiratzen dugu, Udala barne,** adikzioa garatzeko potentziala duten kontsumo/erabilerak begi bistara egiten dira (espazio publikoetan ikusten dira droga kontsumoak, adin txikikoak apustuak egiten...) eta **hauek arautzen dituzten legeak ez dira betetzen,** eskuragarritasuna erreztzen duten eta herritarrontzat ezagunak diren pertsonak, tabernak, dendak... ez dira penalizaten, **beste udalerrri batzuetan baino normalizatuagoa eta inpunitate gehiagorekin ematen da,** egoera hau, eta guztiz anomaloa da poliziaren jarrera pasiboa zigorgarriak diren egoera hauetan. Beraz, prebentziora bideratutako estrategiek ez dute eraginkortasunik izango (ez dute izaten) **kontsumo kultura herri mailan sustatzen delako, berrelikatzen delako.**

Tabakoaren legeari esker tabako kontsumoa jeitsi da, legearekin erakargarritasuna kentzeko kultura lortu bait zen, geroztik aurrera jende askok erretzeari utzi zion eta mugatutako lekuetan bakarrik erretzen zuen. **Gure herrian baina, tabakoaren legeak ezartzen dituen debekuak ez dira betetzen, tabernetan erretzen da eta tabakoaren ordezkorekin (baperraren) erakargarritasuna gazteengan suspertzen ari da.**

Alkohol kontsumoaren eta eskuragarritasunaren bilakaerari dagokionez, herri mailako desadostasuna dago, alde batetik azken urteetan ez dela areagotu pentsatzen dutenak bait daude, orain urte batzuk eta gaur egungo eskuragarritasun maila ere mantentzen dela aipatuz (legez kanpoko droga ere), eta muturrean kontsumoak nabari gora egin duela pentsatzen dutenak, azken hauek egoeraren larritasuna nabarmentzen dute, **alkoholaren kasuan kontsumoa asteburuetakoa ez ezik aste barrura ere pasa delako, horren adibide bezala pintxo potea jarritz.**

Mugikorren erabilera eta bere ondorioak kezka iturri dira herritarrentzat. Gailu digital honek adikzioa jokabideak sustatzeaz gain, **apustuena** batik bat, **pornografiarako** eskuragarritasuna errazten du eta pornografiatik jasotzen dituzten mezuek sexu harremanen ideia distortsionatua ematen die. Gailu digitalekiko gehiegizko esposizioak **nerabeengan bakardade sentimenduen pertzepzioak** gorantza egitea suposatzen du, baita ere beraien artean harremantzeko **komunikazio bortitzaren** erabilera normalizatua ere.

Goian aipatutakoez gain, **substantzia gabeko jokabideen eta droga kontsumoei aurre egiteko eta nerabeak hauetaz ahalik eta gehien babesteko arreta bi fokotan jarri behar da: familiak eta Udala.**

EMAITZAK: Herritarren parte-hartze galdetegia

59

Ikastetxeetan egiten den prebentzio lana ondo dago, baina familiak egin beharreko prebentzio lana ezinbestekoa da, eta gaur egun helburu horretatik urrun egotearen sentsazioa dago. Mendekotasunaren gaia konplexua eta aldagai anitz eta aldagarriez osatuta dagoenez, **familiak informazio eta ahokularitza gehiago behar dute**, horretarako ekintza gehiago sustatu behar dira, baina era berean ekintza hauetan gurasoek parte hartze gehiago izateko bide eraginkorrak bilatu behar dira.

Azkenik, Udala prebentzio lanean jarraitzera animatzen da baina eremu komunitarioan kontsumoen desnormalizaziora bideratutako ekintzak indartu behar dira eta bestetik kirol elkarte nagusiengan jarri behar da arreta, adikzioen aurrean nerabea babesteko baliabide izan ordez, **udalerrian drogarekin dagoen arazoa elkarte hauekin lehertsiki loturik dagoela uste bait da.**

Ongizate emozionalaren inguruan aldiz, **hurrengo EKARPENAK** egin dituzte:

Geroz eta **adin txikiagoarekin antsietate eta ongizate arazoak daudela hautematen da**, uste baino eragin handiagoa duena, etorkizuneko gaixotasun kroniko moduan irudikatzen bait da, beraz herritarrentzako oinarrizko kezka izan beharko litzatekeela uste da.

Ondoez emozionalaren gorakadak baditu oinarri edo arrisku faktore esnaguratsuak: **Familiak osasun mentalean duten prestakuntzarik ezak** eragina du hazkuntza-estiloan eta horren ondorioz familiako kideen ondoez emozionala areagotzen da buru osasuneko arazoak elikatuz; **gizarte bezala emozio desatseginak saihesteko joera** eta hauek estaltzeko gehiegizko medikalizazioa; adikzioa garatzeko potentziala duten kontsumo/erabileren aurrean komunitateak ez dituela nerabeak babesten; **herritarrak inguratzen dituzten sistema desberdinek huts egiten dutela**, ongizatea babestu ordez arrisku iturri bihurtuz (OMZ sistemari eraginkortasuna falta zaionez zerbitzu pribatuko psikologoakana jo behar da eta ordaIndu ezin duenari eskuragarritasuna mugatzen zaio).

Hautematen diren arriskuen aurrean herritarrak, baina batez ere **gazteenak babesteko**, konponbidearen **fokua zabaldu behar da**. Tradizionalki, prebentzio integralaren zama **guraso, eskola eta udalarengan** jarri izan ohi da baina, **hauetaz gain, ingurune atsegin, kohesionatu eta koherentea behar da**, ahaztu gabe, **politikariek eta gainerako erakundeek (Osasun eremukoak, Judizialak...)** honetan ere jarri behar dutela arreta: pertsonen bizitza erdigunean duen kultura batean.

Ikastetxeetan egiten den lanketara begira, **ongizate emozionalera bideratutako programak** Lehen hezkuntzako hirugarren ziklora enfokatzen dira baina prebentzio lana **aurreratu** beharko litzateke, besteak beste **0-3 urteko etapan**

EMAITZAK: Herritarren parte-hartze galdetegia


arreta jarriz eta guraso eta haurren arteko lotura seguruak eraikitzena. Orohar, hezkuntza komunitateko kideek, familia eta profesionalek, trebakuntza espezifikoak eta sareak behar dituzte. Familien kasuan baita ere, berea duen funtzio babeslea berreskuratzea ere, mugikorren kontrol gabe erabilera goiztiarrak nerabeen ongizate emozionalan eragin zuzena bait du.

Jarraian agertzen diren baieztapenekin ados zauden edo ez adierazi:

EGOERA HAUEK AREAGOTU DIRELA USTE DUTENEN EMAITZAK:

Gazteen eta helduen ondoeza emozionala areagotu da % 85,51 eta % 80,84arentzat.

Droga kontsumoa % 74,30arentzat eta gazteen zorizko joko eta kirol apustuak % 67,76arentzat.



Zure udalerrian prebentzioa zabaltzeko eta osasuna sustatzeko eta indartzeko egin daitezkeen ekintzak puntuatu, ematen diezun garrantziaren arabera.

LEHENTASUNEZ LANDU BEHARREKO EKINTZAK GARRANTZIAREN ARABERA: (1 ez du garrantzirik, 5 ezinbestekoa)

- 1- GAZTEENTZAT AHOLKULARIZTA ZERBITZUAK 4,51
- 2- IKASLEEKIN PREBENTZIO LANA LEHENAGO HASTEAK 4,50
- 3- FAMILIENTZAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUAK 4,40
- 4- AISIA ETA DENBORA LIBREKO ESKAINTZA GEHIAGO 4,31
- 5- PREBENTZIOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENERAKO KANPAINAK 4,22
- 6- FAMILIENTZAKO FORMAZIO SAIO GEHIAGO 4,21
- 7- HERRIAN PARTE HARTZEKO AUKERA EDO BALIABIDE GEHIAGO 4,19
- 8- ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA GEHIAGO 3,95

Herritarren arabera ondorengo ekintzak sustatzean edo indartzean jarri behar dira esfortzuak:

1- **Aisialdi eredu osasuntsuagoa**, kirol eta kultura jarduera gehiagorekin. Eskaintzak erakargarria eta dohakoak. Proposamenen artean, udalekuak nerabeentzako, sukaldaritza tailerra, antzerkia...daude, azken hauek haur eta gazteentzako bakarrik izan daitezke edo gurasoekin partekatzea. Aisialdi eredu osasuntsua izan behar du, taberna girotik deslotutakoa, aipatutakoez gain ingurune naturalarekin eta honen zaintzarako

lotutakoak esaterako (auzolanak: urkuluko inguruak probestuz; garbiketa kanpainak, Mendi bideen mantente lanak, inguruko mendien, auzoen, lehen sektoreko ekoizleen,...ezagutza txangoak,...) eta gune zibikoak.

2- **Gaur egun erabilgarri dauden ekintzetan** (kiroldegia, musika eskola...) parte hartu ezin dutenentzako bekak eta hobariak egotea; **aukera berdintasuna izateko neurriak hartzea.**

EMAITZAK: **Herritarren parte-hartze galdetegia**

62

3- Familiei zuzendutako hitzaldiak euskeraz bakarrik ez izatea eta beraien partaidetza gehiago sustatzeko esfortzuak egitea. Udalerriko errealitatearen berri ematea, informazioaren zabalkundea egitea, partaidetza sustatzeko era bat izan daiteke.

4- 0-3 etapan prebentzioa sustatzea duen KUKUMIKU elkarte eta bestetik egoera zaugarrian dauden emakume eta familiak laguntzen dituen GU HAZIAK GARA elkarteei babes ekonomiko eta instituzionala eman. Prebentzioan lan egiteko ezinbesteko tresnak dira Aretxabaletan.

5- Ongizatea sustatzeko talde terapiak egitea.

6- Adikzioa duten pertsonen testigantzak entzutea. Aita Menira eta Santa Agedara bisitak egitea.

7- Ongizate emozionalarekin lotura zuzena duten beste gai batzuk lantzeko tailerrak sortu. Matxismoak indartsu jarraitzen duen ideologia izanik, emakumeen ahalduntzerako egiten diren eskuhartzeak osatzeko, ezinbestean gizonei zuzendutako maskulinatearen inguruko lanketarako tailerrak sortu behar dira.

8- Gazteek udalerrian partaide eta pertinentzia sentimendua areagotzeko ekintzak.

9- Udalerrian dagoen kontsumo kultura aldatzearen beharra eta honek herriarentzako izango lituzkeen onurak herriko erakundeek (Udalak-elkarteek -ikasetzee, familiek) gogoan izatea beraien egunerokotasunean.

Udalerriko aisialdi osasungarriko jardueren inguruko iruzkinak:

Udalerriak aisialdi osasungarriko **eskaintzen dituen jardueretan kirolari, eta zehazki futbolari, pisu gehiegi ematen diola uste da**, ondorioz beste kirolak alde batera uzten dira eta gazteei aukerak murrizten zaizkie eta kirol aniztasuna prebentziorako baliagarria izan daiteke. Zentzu honetan jarduerak urriak izateaz gain, kirol instalakuntzek hobekuntza behar dituzte eta udalaldiko ordutegia zabalagoa izatea, %50era murrizten bai ditu ordutegiak abuztuan. Bestalde, aisialdi osasungarriko **ekintzak gazteen interesetik, proposamenetik abiatu behar dira.**

Azkenik, **familiei zuzendutako formakuntza saioak euskaraz bakarrik izateak** seme-alabak dituzten biztanleriaren zati batengana bakarrik iristea suposatzen du.

Zeintzuk jarduera edo ekimen izan beharko liriateke lehentasunez landu beharrekoak?

Komunitatearen osasuna, hezkuntza eta bizi kalitatea hobetzeko ekimen eta proposamenak ditu ardatz atal honek, bereziki gazte eta familienak. **Hauek dira funtsezko ideiak:**

1- Osasunaren prebentzioa eta sustapenera bideratutako ekimenak:

- Ohitura osasungarriak sustatzea, hala nola elikadura orekatua, ariketa fisikoa eta osasun mentalaren zaintza.
- Adin txikietatik drogen eta alkoholaren kontsumoa prebenitzeko kanpainak.

EMAITZAK: Herritarren parte-hartze galdetegia

63

- Osasun mentaleko zerbitzuak, doakoak eta irisgarriak.

2- Hezkuntza eta gizarte-jarduerak:

- Familia eta gazteentzako tailerrak ongizate emozionalari, gatazken kudeaketari eta adimen emozionalari buruz.
- Nerabe eta helduentzako kultur eta kirol jarduerak sartzeara.
- Tokiko elkarteak aisialdi alternatiboko proiektuetan inplikatzeara.

3- Kontrola eta erregulazioa:

- Herriko ekitaldi eta tabernetan alkoholaren salmenta mugatzea.
- Gaueko ordutegietan zaintza eta kontrol handiagoa, desordena egoerak saihesteko.

4- Kolektibo kalteberentzako arreta:


- Desgaitasunen bat duten edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako programa espezifikoak.
- Zaintza sistema duin eta komunitarioaren sustapena.

5- Hezkuntza integrala:

- Autoestimuari, harremanei eta gatazken konponbideari buruzko gaiak sartzeara eskolatan.
- Familientzako prestakuntza, seme-alabei alderdi horietan nola lagundu jakiteko.


Laburbilduz, erakundeen, familien eta komunitatearen arteko lankidetzaren handiagoa egotea lehenesten da, udalerriko erronkei aurre egiteko eta bizikidetzaren hobetzeko.

Ezagutzen duzue zure udalerriko Gizarte Zerbitzuen Sailak egiten duen prebentzio-lana?



Galdetegia bete duten % 69,2ak EZ DU UDALERRIKO GIZARTE ZERBITZUEN LANA EZAGUTZEN

ONDORIOAK



1- IKASLEEN EMAITZEN ONDORIOAK

BIZIPEN EMOZIONALA:

Oro har, **gazte gehienak pozik edo oso pozik daude beren bizitzako hainbat alderdirekin.** Hala ere, alde nabarmenak daude generoaren eta ebaluatutako alderdiaren arabera:

- Mutilak neskek baino pertzepzio positiboagoa dute beren gorputzari, irudiari eta pisuari buruz.
- Neskak alderdi emozionaletan eta sozialetan gogobetetasuna adierazten duten arren, ez dira hain positiboak beren gorputzari eta pisuari dagokienez.

Familiarekiko harremana da gazteek ondoen baloratzen duten alderdietako bat. Lagunak eta ikaskideekiko harremana ere positiboki hautematen dira kasu gehienetan.

Gogobetetasun gutxien duten arloak pisua eta gorputz-irudia dira eta ondoren aisialdiko jarduerak. Gehienak pozik badaude ere aisialdiko jarduerekin, gazte batzuek uste dute ez dutela aukera esanguratsurik edo askotarikorik.

Azken hilabeteen, hauek izan ziren **gazteen emoziorik ohikoenak:**

- **Zoriontasuna:** % 80k baino gehiagok maiz sentitzen dute.
- **Motibazioa eta lasaitasuna** % 65 eta % 60arekin.

Emozio desatseginei dagokienez, **estresa eta urduritasuna % 26 inguruk maiz sentitzen ditu.**

Hauek dira **genero-desberdintasunak bizipen emozionalean:**

- **Neskak estresa, urduritasuna, kezka eta tristura bezalako emozioak mutilak baino maizago sentitzen dituzte.**
- **Mutilek emozio positibo gehiago izateko joera dute,** hala nola zoriontasuna eta motibazioa, eta emozio desatseginen intzidentzia txikiagoa erakusten dute.

SEXUALITATEA:

Sexualitatearen inguruan hitz egin nahi dutenean, gazte gehienek lagunengana jotzen dute. Familia laguntza-iturri gisa bigarren tokian dagoen arren, garrantzi txikiagoa du, bereziki mutilen artean. Ehuneko handi batek **internet erabiltzen du informazioa bilatzeko baliabide gisa (% 13,75).**

Gazteen **% 43, 67k** sexualitatearen inguruan **duten informazioa nahikoa dela uste du eta** neskek gogobetetasun eza handiagoa erakusten dute.

ONDORIOAK

66

Bestalde, **gazte gehienek adierazi dute eroso sentitzen direla beren nahiak eta beharrak adierazten**, neskak izanik gehien onartzen dutenak, % 80,1 eta ondoren mutilak % 60,6. Hala ere, % 16,7 ez da eroso sentitzen bere nahiak adierazten. **Gehiengok ere uste du iritzia aldatzeko eskubidea duela**; nesken % 86,8k eta mutilen % 77,7k. **Ez-bitarren % 37,5ek uste du denok ez garela berdinak.**

Presio soziala eta konformismoari dagokionez, gazteen zati handi batek **besteen nahien aurrean amore ematea onartzen du**, bai eta beren borondatearen aurka badoa ere; nesken % 50ak eta mutilen % 48,8k hala uste du. Halaber, **nesken % 34,1ak bestearen gozamina kontutan izan behar dela uste du eta gainontzeko nesken % 31,8ak kontrakoa uste du. Mutilek ordea, oso argi dute gozamina partekatua izan behar dela**, % 81,5a ados egonik baieztapen honekin.

Gehiengo zabal bat **ados dago beren gorputzari eta sexualitateari buruz erabakitze eskubidea izatearekin**; neskak dira pertzepzio gehiago dutenak (% 82,8) eta mutilak ondoren % 78a izanik. **Guztiok berdinak garela edozein izanik gure sexualitatea bizitzeko modua, ideiarekin ere ados daude**, batez ere neskak (nesken % 86,1 eta mutilen % 72,2).

DENBORA LIBREA, TEKNOLOGIA DIGITALAK, APUSTUAK ETA JOKOA:

Bat-bateko mezularitza eta sare sozialak dira jarduerarik

ohikoenak, gehiegi handi batek **egunero egiten dituenak. Neskak dira nagusi sare sozialen erabileran eta mutilak bideo jokoetan nabarmentzen dira. Telesailak edo pelikulak ikustea** ere ohiko da, **batez ere nesken artean**. Jarduera fisikoari dagokionez, **kirola ohikoa da bi generoen artean** zertxobait ohikoagoa izanik mutilen artean. **Ekintza artistiko eta kulturei dagokienez, neskek mutilek baino gehiago parte hartzen dute. Diruarekin lotutako apustu eta zorizko jokoetan, mutilek parte hartze handiagoa dute**, bai on-line zein off-line eta erabiltzaileen kopuruaren gorakada handiena 18-19 urte bitarte ematen da. Berdina gertatzen da **pornografiarekin**, non, **mutilak garaile diren. Mutilak ere sarriago joaten dira ludoteka eta gaztelekuetara** desberdinatsun handi egonik **11 urterekin, non mutilen % 25ak eta nesken % 7,01ek parte hartzen duten. 12 urtetik aurrera**, genero guztietan, ludoteka eta gaztelekuen erabilerak behera egiten du.

INTERNETEKIKO ERABILERA ARRISKUTSUA:

CIUS eskalaren arabera, emaitzek hau adierazten dute:

- **Nesken % 71,29k, mutilen % 78,21ek eta ez-bitarren % 75,11k erabilera problematikorako arrisku baxua adierazi dutela.**

Bestetik, **nesken % 28,71k, binarioak ez diren pertsonen % 27,27k eta mutilen % 21,79k adierazten dute on-lineko jazarpen- edo mehatxu-egoerak pairatu dituztela.**

ONDORIOAK

67

MUGIKORRAREN ERABILERA LH-KO 3.ZIKLOAN:

- **Ikasleen % 23,74k mugikor propioa du; mutilen % 28,57k eta nesken % 19k.**
- **% 41,41ek familiako kide baten mugikorra erabiltzen du.**
- **Mugikorrarekin gehien egiten dituzten hiru ekintzak:** musika entzutea, jolastea eta deiak egiten.
- **% 76,74k, mugikorra erabiltzeko arauak ezarrita dituzte.**

SUBSTANTZIEKIN LEHENENGO KONTAKTUAK:

Edari energetikoak dira lehenengo probatzen den substantzia (11 urte), ondoren **alkohola** (12 urte), gero **baperra** (13 urte), jarraian **tabakoa** (13 urte) eta **kalamua** (14 urte). Genero aldetik **mutilak dira lehenengo** haste **direnak probatzen**, desberdintasun handienak baperrean (neskak 9 hilabete beranduago), edari energetikoetan (neskak 8 hilabete beranduago) eta kalamuan (neskak 7 hilabete beranduago) emanik. Probatzen hasteko arrazoien artean, **lagunen eragina eta ondoren kuriositatea** edo jakin-mina aurkitzen dira.

SUBSTANTZIEN KONTSUMOAK:

Mutilak neskak baino gehiago dira substantziak probatzen. Desberdintasun handienak **edari energetikoetan** eta **kalamuan egonik**. Alkoholean izan ezik, **beste substantzia guztietan probatu dutenen tasak dira altuenak.**

- **Edari energetikoak: nesken gehiengoak probatu bakarrik egin ditu, % 16,10a izanik kontsumitzailea. Mutilen kasuan % 40,78ak kontsumitzen ditu.**
- **Alkohola: gehien probatu den bigarren substantzia. Neska eta mutilen kontsumitzaile tasak antzekoak dira; mutilen % 38a eta nesken %33a. Probatu dutenan bakarrik gehiagoak dira eta hilabetero, astero eta sarritan kontsumitzen duten gehiagoak mutilak dira. Alkohola kontsumitzen dutenek taberna edo txosnetan lortzen dutela diote eta kontsumitzeko arrazoi nagusiak ondo pasatzeko eta topera dibertitzeko dira.**
- **Baperra: mutil eta nesken % 20-26k probatu dituzte eta mutilek neskek baino gehiago kontsumitzen dituzte.**
- **Tabakoa: baperra baino zertxobait gutxiago dira probatu dutenak eta baperra bezala mutilak neskek baino gehiago kontsumitzen du.** Kasu honetan sarritan edo ohiz kontsumitzen duten mutilen tasak altuak dira; **baperra probatu dutenen mutilen artean, % 4,69k ohiz erretzen du eta tabakoa aldiz, probatu duten % 39,02k.**
- **Kalamua: Neska eta mutilen artean desberdintasun handia dago mutilen tasak neskena bikoiztuz. Ohiko kontsumoak mutiletan nesketan baino askoz altuagoak dira.**

ESKURAGARRITASUNA ETA NORMALIZAZIOA

Eskuragarri dituzten substantzien artean **alkohola aurkitzen da lehenengoa eta ondoren baperra. Substantzia ilegaleen artean kalamua eta arnasgarriak** dira eskuragarrien dituztenak. Substantziarik gabeko ekintzen artean ordea, **pornografia identifikatu dute eskuragarrien** dauketen ekintza bezala, **kirol apustuetao makinak eta txanpon makinak** jarraituz.

Lehen Hezkuntzako **3.zikloko ikasleen % 57k etorkizunean alkohola edango duela edo agian edango duela dio. Hauen ustez, neurritz kontsumitzen badira substantziak ez dira kaltegarriak.**

2- HAUTEMANDAKO BEHARRAK

- Mutilak neskekin alderatuta, beren gorputzari, irudiari eta pisuari buruzko pertzepzio positiboagoa dute. Horrek adierazten du edertasun-estandarrekin lotutako gizarte-presio txikiagoa hauteman dezaketela. Neskek, alderdi-emozionalean eta sozialean gogobetetasuna adierazten duten arren, ez dira hain positiboak beren gorputzari eta pisuari dagokienez. Gizarte-sareei eta ideal estetikoiei lotutako presio handiagoa jasaten dute. Ondorio hauek, azpimarratzen dute, garrantzitsua dela **gorputzaren irudiarekin lotutako gizarte-presioari heltzea.**
- Nahiz eta gazte gehienek emozio atsegina bizi, funtsezkoa

da **heziketa emozionala indartzea eta urduritasuna eta estresa bezalako emozioak kudeatzeko baliabideak ematea. Espazio seguruak sustatzea,** gazteek beren emozioak partekatu eta landu ahal izan ditzaten, batez ere, erronka emozional handienei aurre egiteko tresnak eskainiz.

- Sexualitatearen inguruan hitz egiteko laguntza-iturriak dauden arren, **gazteek informazio osoagoa, eskuragarriagoa eta ingurune seguruetatik datorrena behar dute.** Horretarako:
 - Konfidantza handiagoa hezkuntza-eremuan: ingurune fidagarriagoa sustatzea sexualitatearen gaia lantzeko.
 - Sexu-hezkuntza fidagarria eta integrala sortzea.
 - Familien elkarriketak gai hauen inguruan sustatzea, sexualitateari buruzko belaunaldian arteko komunikazio hobetzeko asmoarekin.
- Bestalde, **asertibitatea, norberarekiko eta besteekiko errespetuan eta aniztasunarekiko sentsibilizazioan** lan egitearen garrantzia azpimarratzen da.
- Aisialdirako jardueretik ikuspegi orekatu eta kontzientearen beharra dago teknologien inpaktu altua dela eta, hortaz:
 - **Heziketa digitala:** teknologien erabilera kontzientea sustatzeko ikuspegi bat behar da.
 - **Kirolaren sustapena:** jarduera fisikoetan parte hartzeari eustea.

ONDORIOAK

69

- Substantzien **kontsumo goiztiarren normalizazioa kezkagarria** da, batez ere faktore sozial eta kulturek eraginda. Honek kontsumoen adina atzeratzeko eta kontsumoen arriskuetaz informatzeko esku-hartzeak eskatzen ditu:
 - **Prebentzio neurriak** ezartzea adin txikiagoetan.
 - **Gizarte-trebetasunak indartu.**
 - Substantzien **eskuragarritasuna murriztu.**
- **Kontsumitzen hasteko adinean eta kontsumo motetan, aldea dago generoaren arabera** eta horrek **berdintasun ikuspegitik egokitutako prebentzio-estrategiak eskatzen ditu.**

3- GAZTE FOROEN ONDORIOAK

SUBSTANTZIA ETA SUBSTANTZIA GABEKO KONTSUMOAK ETA ERABILERARI BURUZKO PERTZEPZIOA:

Udalerrian **drogen kontsumoa oso normalizatuta dago, batez ere alkoholarena, baperrarena eta kalamuarena.** Alkohola eta baperraren kasuan, hamalau urtekin hastea ohikoa dela dirudi. Bestalde, Poperraren kontsumoan igoera dagoenaren pertzepzio orokorra dago. Kontsumo hauek gehienetan jai giroan ematen diren arren, badaude egunerokotasunean ikusten diren kontsumoa, baperraren kasua da hau. **Kontsumoen gaia arduratzen dien gaia izanda, normalizazio**

honen aurka gazteek ezer gutxi egin dezaketenaren pertzepzioa dute.

Mugikorraren gehiegizko erabilerak ere asko arduratzen die. Antzerakoa gertatzen da adikzioa garatzeko potentziala duten beste jokabide batzuekin, gazte guztiek smartphone bat dutela iruditzen zaien heinean sare **sozialen erabilera eta baita ere bideojokoena oso ohikoa da gazteen artean. Genero aldetik desberdinatsunak daudela iruditzen zaie, Kirol apustuak, batez ere mutiletan ematen bait dira eta nesketan sare sozialen erabilera.** Adikizioen prebentziorako jasotzen dituzten tailerrak desnormalizaziorako erangikorak direla iruditzen zaizkien arren, **adin txikikoei baperraren eskuragarritasun mugatzeko neurri gehiago hartu behar direla uste dute.**

Jokabide hauetaz gain, **Bullying-ak eta eraso sexualak ardura handia sortzen dute eta gai guzti hauek jorrazteko hitzaldi gehiago jasotzearen beharra dago.**

AISIALDIAREN KUDEAKETA:

Udalerrietako aisialdia eskaintzarekiko gogobetetze maila oso altua da. Ekintza anitzak egotea eta hauek gazteen beharretara egokituta egotea positiboki baloratzen da. Hala ere, alderdi batzuk hobetze aldera proposamenak daude, hala nola, irteera gehiago antolatzea eta bestalde, jadanik dauden eskaintzetan ordutegia zabaltzea. Udalerriko eskaintzarekin gustura egon arren, **denbora libre gehiena mugikorraren erabileran inbertitzen dutela adierazi da.**

ONDORIOAK

70

UDALERRIKO BALIABIDE ETA PROIEKTUAK:

Udalerri osasuntsuago bat eraikitzeko **proposamenak egin dira:**

- Osasun Zerbitzu Publikoan **pazienteen arreta arintzea** nabarmentzen da, **lehentasuna emanaz buruko nahasmenen bat duten pertsonen**. Ildo honetatik baita ere, **pazienteari eskaintzen zaion kontsulta denbora luzatzea** iradokitzen da.
- **Drogen eskuragarritasuna murrizteko neurriak aplikatzea** dago, batez ere, adin txikiko **alkohol salmentari dagokionez**.
- Herriko azpiegiturak direla eta, bizilagunen segurtasuna gehiago bermatzeko **herriko argiztapena hobetu behar da**, bai eta mugikortasun murriztua duten pertsonen **irisgarritasuna hobetu** ere, adibidez ezkailerak bezalako oztopo arkitektonikoak ezabatuz.
- Udaleko **zerbitzuen ordutegia zabaldu behar da**, eta Udal arduradunek **jai ekitaldiak antolatzeke orduan espazio zabalen erabileran oinarritu behar dira**.
- **Gazteei kirola egitera animatzeko ekimenetan indar gehiago jarri behar dute eta aisialdiko ekintza guztiak euskaraz izatea sustatu**.
- **Ikastetxean jasotzen diren tailerrekin jarraitzearen beharra dago**, hala ere, tailer hauetan lantzen diren ohiko gaiez aparte **bestelako batzuk lantzea ere proposatzen dira: Homofobia, Genero berdintasuna, Elikadura nahasmenak eta beste buruko nahasmen batzuk**.

ONGIZATE EMOZIONALAREKIKO PERTZEPZIOA:

Ongizate emozionala eta bizi kalitatearekin erlazionatutako alderdiekiko asebetetze maila muturrekoa da aztertutako eskola etaparen arabera.

Lehenengo zikloan dauden herritarrek gogobetetze maila altua dutela hautematen dute, nahiz eta eskola jazarpenak, lagunarteko tratu txarrek eta harreman afektibo sexualiekin lotutako alderdiek ardura sortzen duten, hala nola, nahi gabeko haurdunaldiek eta antisorgailuen erabilera txarrak suposatu ditzaketen ondorioak eta eraso sexualak. Segurtasun falta dagoela baieztatzen da.

Bigarren ziklokoek balorazio oso baxua egiten dute eta honen arrazoia, ez direla kontutan hartuak direla sentitzen da, baina batik bat eremu desberdinetatik jasotzen dituzten presioak dira. Familiatik nota onak ateratzeko gehiegizko presioa dutela hautematen dute eta familiarekin duten komunikazioa nahi besteko ona ez dela uste da. Gehiegizko presioa baita ere, gorputz irudiarekin, sare sozialen bitartez idealizatzen diren gorputzek ideal hori lortu nahi izatearen presioa sortzen bait du eta normotipo horretan enkajatzan ez duenak erasoak jasotzen ditu.

ONDORIOAK

71

HERRIA ETA KOMUNITATEA:

Herriak eta komunitateak orokorrean biztanle guztiak babesten dituela sentitzen da, baina ezaugarri zehatz batzuk babes sentimendu hori murrizten dute, hala nola, gaztea izatea edo udalerrira etorri berria izatea.

Herritar gazteen ahotsa entzun eta kontutan hartzearen beharra dago, eta horretarako aukerak eta espazioak areagotu behar direla uste da. Etorri berriak diren pertsonen kasuan, bazterkeria eta eskubideen urraketa saihesteko neurri gehiago hartu behar direla pentsatzen da.

4- ERAGILEEN FOROETAKO ONDORIOAK

UDALERRIKO PERTZEPZIOA GAZTEEN OSASUN INTEGRALAREN INGURUAN (AZKEN LAU URTEETAN):

1. Kontsumoaren gorakada eta adikzio berriak: tabakoaren eta kalamuaren kontsumoa jaitsi den arren, alkohola, bapeatzaileak eta edari energetikoak igo dira adin txikikoetan. Gainera, mugikorren eta sare sozialen gehiegizko erabilera mendekotasuna sortzen ari da eta gazteen osasun mentalean eragina izaten ari da.

2. Osasun mentalaren narriadura eta medikalizazioa: antsietateak, depresioak eta elikadura-nahasmenduak areagotu

egin dira, batez ere emakumeen artean. Horren ondorioz, antsiolitikoen eta beste farmako batzuen kontsumoak gora egin du, ondoezaren arrazoiei heldu beharrean.

3. Arrisku-faktore soziokulturalak eta familiarrak: substantzien kontsumoaren normalizazioak eta gailu digitalen erabileran mugarik ez egoteak egoera larriagotzen dute. Familiaren gehiegizko babesak, presio sozialak eta profesionalekiko koordinazio faltak gazteen estresa areagotzen dute.

4. Desberdintasun sozioekonomikoa eta baliabide falta: baldintza ekonomikoek osasun emozionalean eragiten dute, eta osasun mentaleko zerbitzuak ez dira nahikoak gero eta handiagoa den eskaerari erantzuteko.

5. Esku-hartzearen beharra: premiazkoa da erakundeek arazo horiek prebenitzeko baliabideetan eta estrategietan inbertitzea, gazteentzako ingurune osasungarriagoa sustatuz.

Laburbilduz, premiazkoa da substantzien kontsumoaren, osasun mentalaren, presio sozialaren eta desberdintasun sozioekonomikoaren arloetan esku hartzea, gazteen ongizatea hobetzeko.

ONDORIOAK

72

UDALERRI OSASUNTSU BATEN OSAGAIAK:

1. Prebentzio eta hezkuntza komunitarioa indartzea:

- Beharrezkoa da prebentzio-programen ikuspegia aldatzea, arreta gazteetan soilik jartzetik komunitate osoa integratuz, bereziki haiekin elkarreraginean dauden helduak: familiak, merkatariak, ostalariak, entrenatzaileak...
- Substantzien kontsumoari eta gailu digitalen erabilera problematikoari buruzko trebakuntza eta sentsibilizazio kanpainak indartu behar dira.
- Funtsezkoa da familien barneko komunikazioa sustatzea eta mugikorra erabiltzean muga osasungarriak ezartzea.

2. Gazteen aisialdirako eskaintza berregituratzea:

- Gaur egun, aisialdirako aukera gehienak kirolari lotuta daude eta ordainpekoak dira, eta horrek ez ditu gazte guztien beharrak asetzen.
- Doako jarduerak eta era askotakoak eskaini behar dira, kultura, musika eta jolas aukerak barne.
- Garrantzitsua da gazteek beren aisialdiaren diseinuan parte hartzea, erakargarria, esanguratsua eta inklusiboa izan dadin.

3. Gazteen erreferentzia eta partaidetza guneak sortzea:

- Gazteek beren ongizate emozionala sustatzeko erreferente argiak aurkitzeko leku fisikoak behar dituzte.
- Espazioak sortu behar dira gazteak entzunak izan daitezen eta beren inguruneari eta beharrei buruzko erabakietan parte hartu ahal izan dezaten.
- Gazteen aldeko tratu hurbilagoa eta positiboagoa sustatu behar da komunitatearen barruan.

4. Erakundeen koordinazioa eta konpromisoa:

- Ezinbestekoa da udal eragileen eta zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea, gazteen ongizatea modu integralean lantzeko.
- Zerbitzuetan inbertitu arren, osasun mentaleko arazoek gora egiten jarraitzen dute; beraz, beharrezkoa da dauden baliabideen eraginkortasuna ebaluatzea eta hobetzea.

Laburbilduz, gazteentzako ingurune osasungarriagoa lortzeko, funtsezkoa da prebentzioa, hezkuntza komunitarioa, parte hartzeko guneak eta aisialdi-eskaintza anitzagoa eta eskuragarriagoa uztartuko dituen estrategia global bat.

OSASUNAREN SUSTAPENA ETA PREBENTZIORAKO PROGRAMAK:

1. Programen koordinazioa eta ezagutza hobetzea: EKKO eta Altxaburua bezalako prebentzio programak daude, baina koordinazio eta ikusgarritasun gehiago behar da, bereziki familia eta eskola eremuan.

2. Prebentzioa eta sentsibilizazioa indartzea: funtsezkoa da gazteekin beren espazio naturaletan ohitura osasungarriak sustatzeko programak bultzatzea, hala nola asteburuetak jarduerekin eta kale-hezitzaileekin., ohitura osasungarriak sustatuz.

3. Programa inkoherenteen doikuntza: Programa batzuk, alkoholaren kontsumoa sustatzen duten ekitaldiak kasu, berrikusi egin behar dira. Premiazkoa da kontsumoaren kultura jorratuko duten ekimenak sortzea eta baita ere laguntza psikologikoko zerbitzuak mantentzea.

Laburbilduz, beharrezkoa da programen koordinazioa indartzea, ikuspegi desegokiak doitzea eta gazteentzako prebentzio eta laguntza-gune gehiago sortzea.

5- HERRITARREN EMAITZEN ONDORIOAK

SUBSTANTZIA GABEKO JOKABIDEEN ETA DROGEN KONTSUMOARI BURUZKO PERTZEPZIOA (AZKEN LAU URTEETAN):

- Substantziarik gabeko jokabideetan **sare sozialak** direla gehien areagotu direnak uste da.
- Substantziei dagokienez, **baperraren eta droga estimulanteen kontsumoak** direla azken lau urteetan gehien areagotu direnak esan da.
- Gehiengoek argi daukate tabakoa, alkohol eta kalamuaren kontsumoak normalizatuta daudela eta erraza dela substantziak eskuratzea.

UDALERRIAN ONGIZATE EMOZIONALAREN INGURUKO PERTZEPZIOA (AZKEN LAU URTEETAN):

- Herritar gehienek iritziz aipatutako **nahasmendu guztiak areagotu dira.**
- Antsietate eta depresioa dira gehien areagotu direnak.

ONDORIOAK

74

- **% 20-26k uste du udalerrriak ez dituele gazteak babesten eta udalerrria bera ere ez dela osasuntsua.**
- **Gazteen eta helduen ondoeza aregatu den sentrazioa dago.**

LEHENTASUNEZ LANDU BEHARREKO EKINTZAK:

- Gazteentzat aholkularitza zerbitzua eta prebentzio lana lehenago hasia.
- Aisialdia osasuntsuagoa.
- Ekintza desberdinetan aukera berdintasuna izateko neurriak ezartzea.
- Familiei zuzendutako saioak euskaraz bakarrik ez izatea.
- 0-3 etapan prebentzioa sustatzea.
- Ongizatea sustatzeko talde terapiak egitea.
- Ongizate emozionalarekin lotura zuzena duten beste gai batzuk lantzeko tailerrak sortu.
- Gazteek udalerrrian partaide eta pertenezia sentimendua areagotzeko ekintzak.

- Udalerrrian dagoen kontsumo kultura aldatzea. Erregulazioa eta kontrola.
- Kolektibo kalteberentzako arreta.

Laburbilduz, erakundeen, familien eta komunitatearen arteko lankidetzaren handiagoa egotea lehenesten da, udalerriko erronkei aurre egiteko eta bizikidetzaren hobetzeko.

GIZARTE ZERBITZUETAKO LANA:

- **% 69,2k ez du Gizarte Zerbitzuetako lana ezagutzen.**

6- ONDORIO OROKORRAK

Diagnostikoko iturri desberdinetako ondorioak aztertu ondoren, hauek izango lirateke **ondorio orokorrak**:

- Sexualitatean, ikasleekin norberaren desioak adieraztearen lanketaren beharra ikusten da. Ildo honetatik ere, on-lineko jazarpen edo mehatxu egoerak daudela ikusita, honi ere heltzearen beharra dago.
- Sexualitatea eta pertsona arteko harremanak DBHko lehenengo zikloan lantzea eta gizarte presioa, gorputzaren irudiarekin lotutako presioa (sare sozialak) bigarren zikloan.
- Heziketa emozionala indartzea EKKO bezalako programekin eta emozioak kudeatzeko baliabideak eskaintzea nerabe eta gazteei.
- Espazio seguruak sustatzea, nerabe eta gazteek beren emozioak partekatu eta landu ahal izateko.
- Gazteei udalerrian protagonismo eta ahots gehiago ematea.
- Osasun zerbitzu publikoan pazienteen arreta bizkortzea eta kontsulta denbora luzatzea. Bestalde, buruko nahasmenduren bat duten pertsonak artatzeko baliabideak areagotu.
- Kontsumoen adina atzeratzearen beharra dagoela identifikatu ondoren, osasunaren sustapena eta prebentzio programak aurreratzearen beharra ikusi da. Programa hauek genero ikuspegia kontutan izatea.
- Substantzia gabeko kontsumoetan mutil gazteekin joko eta apustuak lantzea eta neskekin sare sozialak.
- Kontsumoak oso normalizatuta daudela eta herri oso permisiboak direla ikusita, lanketan integral baten beharra dago familia, ostalaritza eta udalaren artean koordinatuz. Komunitatea aktibatu behar da.
- Eskuragarritasuna murrizteko neurriak hartu behar dira batez ere adin txikikoei begira.
- Udal zerbitzuen eta udal teknikoaren artean koordinazioa egon behar da eta gazteen osasun integrala hobetzeko eta ingurune seguruago eta osasuntsuago bat sustatzeko ikuspegi komunitario eta koordinatu baten beharra azpimarratzen da.